



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko azaroaren 6a

110. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 9. artikulua aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (11. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroan nekazaritzako ustiatzeari lotutako artisau-ekoizpena arautzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (12. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enplegu zentro bereziak eta gizarteratzeko eta laneratzeko zentroak arautu ditzan. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (13. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da bere gain har dezan Josefina Arregui psikiatriako zentroko egonaldi laburreko ospitaleratze-araubideko osasun-laguntza osoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jaso dezan 7/2009 Foru Legean xedatutakoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan bertsolaritzaren gaineko ikerketa, zabalkunde eta sustapen programa bat diseinatu dezan 2010eko ekaina bitartean. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (16. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun etxeetako administrazio-alor guztiei buruzko azterlan bat egin dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (18. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da errezeta elektronikoa jar dezan abian Nafarroa osoan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (19. or.).

—Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak hurkotasuna adierazten die Nagore Lafaggeren eta M^a Puy Pérezen familiei, eta orain arte erakutsi dien babes eta elkartasuna berresten ditu. Eledunen Batzarrak onetsia (20. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer irizpide baliatu dituen 2010eko Nafarroako Aurrekontu Orokorren aurreproiektuan PFEZaren % 0,7ko kontusailak ezartzeko, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (21. or.).
- Galdera, NA-135 errepidearen trazadurari buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (22. or.).
- Galdera, Nafarroako Antzoki Sarearen webgune berriari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (22. or.).
- Galdera, Nafarroako arte eszenikoko konpainien eta taldeen behin betiko katalogo gaurkotuari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (23. or.).
- Galdera, Foru Administrazioko behin-behinekotasunari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (23. or.).
- Galdera, Iruñean 1972an eginiko topaketen erakusketari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (24. or.).
- Galdera, etxebizitzak barrutik zaharberritzeko eskaerei buruzkoa, José María Vázquez Royo jaunak egina (25. or.).
- Galdera, alokairuko 1.000 etxebizitzatik gora eraikitzeko proiektuen lizitazioari buruzkoa, José María Vázquez Royo jaunak egina (25. or.).
- Galdera, Reina Sofía museoak antolatutako “Encuentros del 72” izeneko erakusketari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (26. or.).
- Galdera, Nazioarteko Garapenerako Lankidetzako kontusailari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (27. or.).
- Galdera, Garapenerako Lankidetzako gastua kalkulatzeko aplikatzen diren formulei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (28. or.).
- Galdera, Nafarroako Antzerki Eskolarako egoitza egonkor bat bilatzeko zuzemenei buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes eta Ana Figueras Castellano andreak egina (28. or.).
- Galdera, Esako gaizkata-haztegiari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (29. or.).
- Galdera, Zentro Pilotuen Planari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (30. or.).
- Galdera, “Kutsadurari aurre hartzea eta zuzentzea” izeneko kontusailari buruzkoa, María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (31. or.).
- Galdera, zebra muskuiluen izurriari aurre egiteko hitzarmenik sinatu ez izanari buruzkoa, María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (31. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2009ko irailaren 11ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko urriaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa

2. idatz-zatiaren aurretik beste bat gehitzea proposatzen da (2. idatz-zatia, horrela, 3.a izatera pasako litzateke). Hona testua:

“2. Foru lege hau aplikatuko zaie, besteak beste, Administrazioaren informazio-, aholkularitza-, izapide- eta ebazpen-prozesuei, baldin eta Nafarroako Foru Komunitatean enplegua eta ekonomia sustatzeko eta produkzio eredua dinamizatzeko lagungarri izan daitezkeen enpresa-ezarpeneko proiektuei edo jarduerak egokitzeko eta handitzeko proiektuei eragiten badie”

Zioak: Gure ustez, foru legearen xedea eta aplikazio eremua aberasten ditu idatz-zati honek.

2. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

2. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko c) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lanbide elkargoak eta “bestelako entitate publikoek” ez dira izan behar enpresa edo lanbide jarduerak abian jarri aurretik jarduketak egin behar dituzten eragileak; izan ere:

a) Ez dira kasu guztietan nahitaezkoak.

b) Prozedura-betebehar berriak sortzea ekarriko luke.

Administrazioa errazteko neurriei buruzko lege hau berez gerta liteke traba, administrazio-beharrian berriak ezarri gero.

3. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

3. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3 artikuluko c.3) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lizenziak, oro har, herritarraren eskubide bat dira, eta legeak ezartzen ez duen betekizun baten arabekoak baldin badira, legezkotasun printzipioa urratzen da.

4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

4. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuaren 4. artikuluko 4., 5. eta 6. idatz-zatiak kentzeko zuzenketa.

Zioak: “Epeak erdira murriztea” zorrotasun juridikorik gabeko esapidea da, eta, hori gutxi balitz, ez da behar bezala zehazten zer eperi buruz ari den (7. idatz-zatiko aipamena erabat generikoa da): Administrazioaren beraren epeak balira, legeak xede duen helburuaz ariko ginatete; aitzitik, herritarrari dagozkion epeak baldin badira erdira murriztu nahi direnak, aurkako efektua lor daiteke; alegia, herritarra eskubiderik gabe gera daiteke, herritarra bera baita epeak agortzeko interesa duena, *a priori* presakotzat jotzen den prozedura batean.

5. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa:

Nafarroako Gobernuak erabaki bidez deklaratu ahalko ditu foru intereseko inbertsio ondoko proiektuak:

a) Baldin eta inbertsoreek edo sustatzaileek espresuki eskatzen badute, behar bezala arrazoi-tutako eskabidean.

b) Baldin eta produkzio nahiz sustapen jardueri buruzkoak badira.

c) Baldin eta ez badira egiten lehenagoko gale-
ra edo atzerapen ekonomikoak estaltzeko, kon-
pontzeko edo horiez arduratzeko.

d) Baldin eta garrantzi berezia badute Nafarroaren ekonomia, gizarte edo lurralde garapenerako.

Zioak: Garrantzizko administrazio jarduera da Foru Komunitatearen interesekoa dela deklaratzeari, ezin dena utzi Nafarroako Gobernuaren edo Administrazioaren erabakiaren mende egon.

6. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“3. Nafarroako administrazio publikoek lehentasunezko eta presako bultzada emanen diete foru intereseko inbertsio deklaraturakoei haien izapideetan; hortaz, deklarazio hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da”

Zioak: Administrazioek aplikatu ahal izateko, Foru Komunitatearen interesaren deklarazioak jendaurrekoa izan behar du, eta, argitaratzeak hori ziurtatzen du.

7. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko 7. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“7. Aurreko ataletan jasotakoak eragina izanen du foru legeetan, foru dekretuetan eta foru aginduetan ezarritako epeetan, baldin eta Administrazioari eragiten badiote”

Zioak: Arestiko zioetan azaldu bezala, epeen murrizketak ez die Administrazioaren epeei soilik eragin behar, ezpada herritarrarenei ere; izan ere, herritarrak, komeni baldin bazaio, arduraz jokatu du, eta ez du galduko izapidatze-eskubiderik, esaterako epearena.

8. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4.7 artikulua aldatzeko zuzenketa.

4.7 artikulua amaieran honako testua gehitzea proposatzen da:

“nahiz Europako”

Zioak: Ezin dira alde batera utzi Europar Batasunak ezarritako arauak.

9. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua aldatzeko zuzenketa

Idatz-zati bat gehitzea proposatzen da; bigarre-na izanen denez, gainerakoei beste zenbaki bat eman beharko zaie. Hona testua:

“2. Nafarroako Gobernuak bi hilabeteko epean aurkeztu beharko ditu Nafarroako Parlamentuko kasuan kasuko batzordean foru intereseko proiektuak”

tu edo inbertsio' deklaratzeko erabakiak, kalifikazio hori emateko erabakigarritzat jo diren ezaugarri buruz informatze aldera, hala kalifikazio hori izapidetzearen hasieran eman denetan nola administrazio-izapidetzearen beste edozein unetan edo fasetan eman denetan”

Zioak: Beharrezkoa da Parlamentuak gutxieneko kontrola izatea gisa horretako espedienteen edo proiektuen gainean.

6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

10. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluko 2., 3., 4. eta 5. idatz-zatiak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Erregelamendu bidez ebatzi behar dira gainontzeko aurreikuspenak.

11. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“1. Nafarroako Gobernuak administrazio-izapidetzarako bulego bat sortuko du, enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzearekin zerikusia duten gai edo prozedura guztietan informazio, aholkularitza, izapidetza bateratu eta, beharrezkoa denean, ebazpen zerbitzuak modu zentralizatuan emanen dituen unitate administratiboa alegia, eta Administrazioaren leihatila bakarrek zereginetan jasoko ditu ekimen oro, bai eta ebazpen prozedurak ebatzi eta atxiki ere. Bulego hori Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren menpe egonen da, eta haren eginkizunak erregelamendu bidez ezarriko dira”

Zioak: Jarduera ekonomikoak izapidetzeko bulegoak ekimenean hartzaile lana egin behar du –“leihatila bakarra” izena eman ohi zaio horri–. Herritarren eta administrazioaren arteko harremanak arrazionalizatzeko ahalegin positiboa da inondik ere. Bere eginkizun nagusia da izapidetza aurreikustea, eginkizunak esleitzea eta jarraibideak ezartzea.

12. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6.5. artikulua aldatzeko zuzenketa.

6. artikuluko 5. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

“6.5. Nafarroako Foru Administrazioiko departamentu bakoitzak ezarriko du, foru lege hau indarrean sartu eta hilabeteko epean gehienez ere, zer pertsona edo pertsonak arduratuko diren Jarduera Ekonomikoak Izapidetzeko Bulegoarekiko lankidetzaz.”

Zioak: Ezin dira alde batera utzi Europar Batasunak ezarritako arauak.

7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

13. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

7. artikulua testuaren ordean honako hau proposatzen da:

“Bi hilabeteko epean, Jarduera Ekonomikoak Izapidetzeko Bulegoa atxikia duen Departamentuak, gainerako departamentu eskudunekin elkarlanean, enpresentzako zerbitzuetarako atari berezi bat jarriko du abian Nafarroako Gobernuaren Interneteko atarian, eta bertako edukiak koordinatuko ditu, horien eguneratzea eta mantentze lanak ziurtatuz”

Zioak: Gure ustez, auziaren garrantziak eskatzen du zehaztea zein epetan egonen den erabilgarri atari berriazko hori.

14. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa. Enpresentzako, profesionalentzako eta entitate sustatzaileen zuzenkerako zerbitzuen ataria.

“Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak, gainerako departamentu eskudunekin elkarlanean, enpresentzako, profesionalentzako

eta entitate sustatzaileentzako zerbitzuen atari berezi bat jarriko du abian...”

Zioak: Legearen izenburuaren arabera, hala legearen xedea nola bertan aipatzen diren entitateak dira ez soilik enpresak, baizik eta profesionalak eta entitate sustatzaileak ere, esate baterako fundazioak.

8. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

15. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Informazioaren alorreko betekizunak berrikusi eta murrizteari buruzko lege-aurreikuspena, jakina, egin beharreako da, baina lege-testu batean aldarrikatzeak ez dakar berez aurrerabiderik. Areago, deklarazio hori aitzakia bat edo eragozpen bat izan daiteke arlo horretako ekintzak aurrera ez ateratzeko.

16. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8.2 artikulua aldatzeko zuzenketa.

2. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

“Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko departamentuek enpresei eta haien ordezkari eskatutako informazio betebeharrak aztertu eta murriztu beharko dituzte, bidezkoa bada, foru lege honetan jasotzen diren deklarazioen babesean, zeinak 11. eta 12. artikuluetan zehazten baitira”

Zioak: Legearen testua hobetzen du.

9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

17. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Administrazio-zamen gaineko azterlana foru lege hau garatzean egingen da, kasuko foru aginduaren bidez edo xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz. Sobera dago, hortaz, 9. artikulua, ez baitio ezer gehitzen xedapen gehigarriak aurreikusitakoari.

18. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua aldatzeko zuzenketa.

9. artikulua amaietan honako testua gehitzea proposatzen da:

“Foru lege hau indarrean sartu eta hilabeteko epean emanen da foru agindua”

Zioak: Legearen testua hobetzen du.

10. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

19. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Administrazio-zamen gaineko azterlana foru lege hau garatzean egingen da, kasuko foru aginduaren bidez edo xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz.

20. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa.

10. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

“2. Foru lege hau indarrean sartu eta bi hilabeteko epean, departamentu bakoitzak Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentuari aurkeztuko dizkio egoki irizitako lege aurreproiektuak edo erregelamenduak, ahalik eta azkarren argitze aldera foru lege honetako manuak aplikatzeko oinarriak”

Zioak: Legearen testua hobetzen du.

11. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

21. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko zuzenketa.

11. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

“2. Nafarroako Gobernuak foru lege hau argitaratu eta hilabeteko epean arautuko du zein kasutan abiarazi ahalko den enpresa edo lanbide jarduerara, behar bezala beteta aurkeztuz erantzukizuneko aitortpena eta eskatzen diren gairontzeko baldintzak. Eskatutako dokumentazio guztia aurkezteak berarekin ekarriko du, besterik gabe, jarduera lizentzia ematea, arau indardunekin bat datorrela egiaztatzeko baldintzapean betiere.”

Zioak: Legearen testua hobetzen du.

22. ZUZENKETA

NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“2. Nafarroako Gobernuak foru dekretu bidez arautuko du zein kasutan ekin ahal izanen zaion enpresa edo lanbide jarduerari behar bezala izenpetutako erantzukizuneko aitortpena aurkeztuz, bai eta bete beharreko beste baldintzak zein diren ere. Eskatutako dokumentazio guztia aurkezteak ekarriko du jarduerari ekiteko behin-behineko baimena ematea, eta baimen hori jarduera-lizentzia bihurtuko da egiaztatzen denean erantzukizuneko aitortpena araudiarekin bat datorrela.”

Zioak: Erantzukizuneko aitortpena herritarrak Administrazioarekin duen konpromisotzat hartu behar da, eta berehalako ondorioak ditu, baina ondoren egiaztatu beharrekoa, ekidite aldera intrusismo kasuak edo araudi indarduna betetzen ez diren kasuak. Hartara, “jarduera lizentzia besterik gabe ematea” ez da kontzeptu egokia; aitzitik, berehalako baimena da, eta egin beharreko egiaztapenak egin ondotik bihurtzen da lizentzia, beste la disfuntzio juridiko larriak gerta daitezkeelako.

23. ZUZENKETA

NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluari idatz-zati bat, 3.a, gehitzeko zuzenketa.

“3. Erantzukizuneko aitortpena enpresaburua-ren, profesionalaren edo entitate sustatzailearen eskubide bat da, eta, hartara, profesional batek edo entitate batek baliatu ahalko du, non eta aldezturik ez dituen bete gabe utzi erantzukizuneko aitortpenaren betebeharrak. Hortaz, erantzukizuneko aitortpenak zinpeko aitortpena jaso beharko du. Lehenago eginiko beste erantzukizuneko aitortpen batetik heldu diren betebeharrak bete ez dituen aitortpen arduratsua *in limine* baztertuko da betiere.”

Zioak:

Legezko zuzenkeraren neurria ezarri behar da erantzukizuneko aitortpenaren figura juridikoak ekar lezakeen pikarokeria dela eta, Administrazioaren beraren ziurtasunerako eta herritarrekiko harremanen seriotasunerako.

12. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

24. ZUZENKETA

NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

12. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“2. Nafarroako Gobernuak foru dekretu bidez arautuko du zein jardueratan ekin ahal izanen zaion enpresa edo lanbide jarduerari, artikuluhonek aipatzen duen aurretiazko komunikazioa, behar bezala izenpetua, aurkeztuz, bai eta bete beharreko beste baldintzak zein diren ere; besteak beste, aldezturik egin ez izana bete gabeko erantzukizuneko beste aitortpen bat.”

Zioak: 11. artikuluari aurkeztutako zuzenketarekin bat.

25. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

12. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Gaztelaniazko testuan, :”[...] y acompañándola, en su caso, cuantos documentos sean necesari-

os” jarri orde, ondokoa jarriko du :”[...] y acompañándola, en su caso, de cuantos documentos sean necesarios”

Zioak: Zuzenketa tekniko hutsa.

13. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

26. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

13. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“3. Faltsutasunak ekarriko du behin-behineko baimena bertan behera gelditzea berehala, eta ukitutako jarduera betetzea galarazita, horren berri izaten den une beretik; bidezko diren erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak ere ez dira baztertzeko.”

Zioak: Gure ustez, behin-behineko baimen bat bertan behera utz daiteke inolako arrisku edo ondorio juridikorik izan gabe, baina lizentzia baldintzatua balitz, ondorio juridikoak izanen lituzke.

27. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

13.4. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Aukera” hitzaren orde, “ezintasuna” agertuko da 13.4 artikuluan.

Zioak: Foru lege proiektuak jasotzen dituen kontrola eta ikuskaritza hobetzea da zuzenketa honen helburua.

28. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

13. artikulua aldatzeko zuzenketa

13. artikuluari 1. idatz-zatia gehitzea proposatzen dugu. Hona testua:

“Foru lege hau indarrean sartu eta hilabeteko epean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak prest izan beharko ditu erantzukizuneko

aitorpenaren eta alde aurreko komunikazioaren ereduak, hala euskarri digitalean, web atariaren bidez bete ahal izateko, nola paperean.”

Zioak: Ereduak ezarrita izatea da helburua, foru legea lehenbailehen aplikatu ahal izateko.

29. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

13. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

13. artikuluari idatz-zati bat, 6.a, gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“6. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, kontrolaren eta ikuskatzearen ondorioetarako, administrazio-ikuskaritzako kidego berariazkoa sortuko du, edo, horren ezean, bere langileen bidez indartuko ditu jadanik badauden ikuskaritzako kidegoak, prozeduraren egiazkotasunak egiaztatzea helburu eta, kasua bada, kasuan kasuko txostena egite aldera, artikulua honetan jasotzen diren terminoetan zehapen-espeditatea abiarazteko.”

Zioak: Foru lege proiektuak jasotzen dituen kontrola eta ikuskaritza hobetzea da zuzenketa honen helburua.

14. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

30. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

14. artikuluaaren titulua eta 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Behin-behineko jarduera lizentziak.

“1. Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako toki entitateek, enpresa edo lanbide jarduera bati eragiten dioten behin-behineko baimenak emateko ekintzetan beretan, enpresa edo lanbide jardueren lizentziak eman eta ukatu arte, horiek ukatzea saihesteko klausulak gehitu ahalko dituzte, aplikatzeak diren legeek ezarritako baldintzak eskatuz, azkartasun eta eraginkortasun administratiboa direla eta.”

Zioak: Hor dira aurrekariak.

31. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

14.1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Horiek” jarri orde, “aipatu lizentziak” agertuko da 14.1 artikuluan.

Zioak: Ez da garbi gelditzen “horiek” klausulak ala lizentziak diren, eta nahasgarria denez, komeni da hori argi uztea.

**15. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****32. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

15.1 artikulua aldatzeko zuzenketa.

15.1 artikuluan ondokoa gehituko da: “foru lege hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean gehienez ere”

Hartara, ondokoa izanen da testua:

“1. “Nafarroako Gobernuak, foru lege hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean gehienez ere, sistema telematiko bat...”

Zioak: Legea lehenbailehen aplikatzea nahi da.

**16. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****33. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

16. artikulua eta artikulua izenburua aldatzeko zuzenketa.

“16. artikulua. Behin-behineko baimenaren eta izapidetze murriztuaren xede diren lanbide elkar-goetikiko, entitate ikuskatzaileekiko eta abiarazi beharreko jarduerarekin lotutako erakundeekiko koordinazioa.

Nafarroako administrazio publikoek lanbide elkargoekin, entitate ikuskatzaileekin eta abiarazi beharreko eta presako izapidetzea eman nahi zaion jarduerarekin lotutako erakundeekin koordinatzeko bideak ezarriko ditu.”

Zioak: Ez da bidezkoa ikus-onetsiak eskatzea, egiaztapenak bide telematikoen bidez egin badaitzke.

34. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

16.1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

1. idatz-zatiaren amaieran ondokoa gehitzea proposatzen da, hauxe alegia:

“Aukera horrek ez dio inolaz ere kostu handi-
goa ekarriko administrazio-prozedurak ukitutako proiektuaren sustatzaileari”

Zioak: Jatorrizko testua nabarmen hobetzen du.

**17. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****35. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

17. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Auzia behin eta berriz ageri eta errepikatuta da.

**XEDAPEN GEHIGARRIEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****36. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehen xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

Lehen xedapen gehigarrian ageri den sei hilabeteko epea hamabost eguneko izan dadin proposatzen da.

Zioak: Foru legearen ondorioak lehenbailehen aplikatzea nahi da.

37. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

Bigarren xedapen gehigarrian ageri den sei hilabeteko epea bi hilabetekoa izan dadin proposatzen da.

Zioak: Foru legearen ondorioak lehenbailehen aplikatzea nahi da.

38. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

“2. Jarduera Ekonomikoak Izapidetzeko Bulegoa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari atxikiko zaio.”

Zioak: Bulego horren izaera orokorra ikusita, departamentu horri atxikirik egon behar du.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 9. artikulua aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 9. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori 2009ko ekainaren 9ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9.1 artikulua aldatzeko zuzenketa.

“1. Erreserbaren entitate onuradunak izanen dira: Nafarroako Gobernuan behar bezala sailkatuta eta erregistratuta dauden laneratze zentroak, apirilaren 26ko 130/1999 Foru Dekretuaren eta hura aldatu zuen otsailaren 4ko 26/2002 Foru Dekretuaren arabera; irabazi asmorik gabeko entitateak; eta enplegu zentro bereziak, zeinak, abenduaren 4ko 2273/1985 Errege Dekretuarekin bat –Enplegu Zentro Berezien Erregelamendua onetsi zuen–, legez eratuta eta erregistratuta egon beharko baitute. Enplegu babestuari buruzko gainerako programek hala direla egiaztatu beharko dute, indarrean dagoen araudiaren arabera.

1. bis. Erreserbaren onuradun diren enpresek edo entitateek aplikatzekoa zaien legerian ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, eta haien xedea edo jardunak kontratuaren xedearekin zerkusi zuzena izan beharko du, entitatearen araudi, estatutu edo eratze-arauen arabera.”

Zioak: Gure ustez, argi zehazten badugu zein diren legearen onuradunak, segurtasun juridiko handiagoa ematen diogu legerari.

2. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bi idatz-zati berri, 4.a eta 5.a, gehitzeko zuzenketa.

“4. Ezarritakoa betetze aldera, Nafarroako Gobernuak zenbatekoak finkatuko ditu departamentu, enpresa publiko eta Nafarroako Gobernuaren menpeko erakunde autonomo edo zuzenbide publikoko entitate bakoitzerako, eta horiek betetzeari buruzko kontuak eman beharko dituzte. Arau hau ez aplikatzeko justifikazio bakarrak izan ahalko dira kontratu erreserbatuetarako lizitazioa ez aurkeztu izana, aurkeztutakoek sailkapen egokia ez izatea edo ez betetzea ahalmen tekniko eta profesionalari buruzko baldintzak, edo ez izatea laneratze zentrorik edo enplegu zentro berezirik lizitazioaren xede den jardueraren esparruan.

5. Erreserbatutako kontratuei ezarritako kontratazio publikoaren arloan indarrean dagoen araubide juridikoa, eta ezin izanena da eskatu behin-behineko edo behin betiko bermeak eratztea.”

Zioak: Garrantzitsua da, gure iritziz, Nafarroako Gobernuak berak jarraipen-mekanismoak jarritzea abian foru lege hau zuzen bete dadin.

3. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

“Xedapen gehigarria. Izaera Sozialeko Entitateen Batzordea eratzea.

Lege hau indarrean sartu eta hiru hilabeteko epean, Izaera Sozialeko Entitateen Batzordea eratuko da; batzorde horren eginkizuna aholkuak

ematea izanen da, eta foru lege honek aipatzen dituen izaera sozialeko entitateei parte hartzeko bidea ematea.

Nafarroako Gobernuak arautuko du aipatu batzordearen funtzionamendua eta zehaztuko du zer erakundek parte hartuko duten batzordean. Edonola ere, kontuan hartuko dira, gutxienez, Red de Economía Alternativa y Solidaria de Navarra

elkartea (REAS), Empresa y Solidaridad fundazioa eta laneratze zentroyen eta enplegu zentro bereziren ordezkari bat.”

Zioak: Garrantzitsua iruditzen zaigu batzorde bat eratzea bilduko dituenaren hemen xedatutakoa bete behar duten entitateen eta erakundeen ordezkariak.

Foru Lege proposamena, Nafarroan nekazaritzako ustiatzei lotutako artisau-ekoizpena arautzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroan nekazaritzako ustiatzei lotutako artisau-ekoizpena arautzen duen Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2009ko azaroaren 16ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proposamena 2009ko ekai-

naren 26ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enplegu zentro bereziak eta gizarteratzeko eta laneratzeko zentroak arautu ditzan.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita enplegu zentro bereziak eta gizarteratzeko eta laneratzeko zentroak arautu ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten populazio-sektoreentzako enplegua sortzen duten enpresei laguntza publikoa ematea funtsezko tresna da, eta are garrantzitsuagoa da krisialdi ekonomikoetan eta lan arloko krisialdietan; hain zuzen, gaur egun gure herrialdeak bizi duen egoera bezalakoetan.

Halako neurrien beharra agerian jartzen da, besteak beste, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 9. artikuluan, zeina

izaera sozialeko entitateentzako kontratu publikoen erreserbari buruzkoa baita. Xedapen horretan aurreikusten da esleipen prozedura jakin batzuetan parte hartzeko aukera erreserbatzea tailer babestuei edo enpresei, enplegu babestuko programen esparruan, ukitutako langile gehienek ezgaitasunen bat duten pertsonak direnean, bai eta gizarteratik bazterturik geratzeko arriskua duten pertsonak laneratzeko helburu duten enpresei ere. Xedapen horren eraginkortasun urria ikusita, Nafarroako Parlamentua hura aldatzeko foru lege proposamen bat izapidetzen ari da (7-09/PRO-00013). Osoko Bilkurak foru lege proposamen hori aintzat hartzea onetsi zuen. Proposamen horretan ezartzen denez, ezinbestekoa izanen da esleitutako kontratuan ehuneko 6 erreserbatzea irabazi asmorik gabeko enplegu zentro berezientzat eta gizarteratzeko eta laneratzeko zentroentzat. Hala, gutxieneko konpromiso hori ezartzen da, indarrean dagoen arauan agertzen den gehieneko muga ezarri beharrean: alegia, aurreko aurrekontu ekitaldian esleitutako kontratuen zenbatekoaren ehuneko 20ko muga.

Bestalde, Nafarroako IV. Enplegu Planak zenbait neurri aurreikusten ditu enplegu zentro berezei laguntzeko. Planean bertan adierazten denez, "Enplegu Plan honek lagungarria izan behar du zentro horiek etengabe mantendu eta hobetzeko, bai eta horien kalitatean, eraginkortasunean eta garapenean sakontzeko." Halaber, planean aurreikusten dira gizarteratean baztertuta egoteko arriskuan dauden taldeak laneratzeko programak sustatzeko neurriak.

Foru erkidegoak ez dauka berariazko araudirik aipatu enpresen funtzionamendua eta horientzako laguntza publikoa arautzeko; aldiz, beste erkidego batzuetan gai horri buruzko xedapenak eman dira. Ezinduen Gizarterateari buruzko Legean aurreikusitako enplegu zentro bereziak Estatuaren erre-

gelamendu baten bidez araututa daude (abendua-
ren 4ko 2273/1985 Errege Dekretua), baina ez da
garapen araurik eman Nafarroak arlo horretan
dituen eskumenen esparruan. Gizarteratzeko eta
laneratzeko zentroi dagokienez, daukaten araudi
bakarra da dirulaguntza programei buruzkoa (apiri-
laren 26ko 130/1999 Foru Dekretua), eta, aldiz,
beste autonomia erkidego batzuek –Kataluniak
edo Errioxak, esaterako– gai horri buruzko berari-
azko legeak ere badauzkate.

Egoera horretan, komenigarria da, beharrezko-
tzat jotzen diren beste neurri batzuen artean, erre-
gelamenduzko araudi bat prestatzea, indarrean
dauden legeak garatzeko eta halako entitateen

antolamendua, funtzionamendua eta babes publi-
koa arautzeko.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena
aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-
nua premiatzen du lehenbailehen eta beharrezkoa
den prozeduraren bidez, presta eta onets ditzan
enpleguko zentro berezien eta gizarteratzeko eta
laneratzeko zentroyen antolamendua, funtziona-
mendua eta babes publikoa arautzeko beharrezko-
ak diren erregelamenduzko arauak.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da bere gain har dezan Josefina Arregui psikogeriatriako zentroko egonaldi laburreko ospitaleratze-araubideko osasun-laguntza osoa.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko
azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen
Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu
zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parla-
mentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren
bidez Osasun Departamentua premiatzen baita
bere gain har dezan Josefina Arregui psikogeriatri-
ako zentroko egonaldi laburreko ospitaleratze-
araubideko osasun-laguntza osoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-
an argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea
eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea ezta-
baidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren
eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez
Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek,
Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua-
ren eta hurrengoaren babesean, honako mozio
hau aurkeztu dute, Osasun Batzordean eztabaida-
tu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

ARFE- Felipe Lecea fundazioa irabazi asmorik
gabeko erakunde bat da eta Nafarroako Foru
Komunitatean Josefina Arregui zentro psikogeria-
trikoa kudeatzen du, haren titularra izateaz gain.
Zentro horrek egonaldi laburreko ospitaleratze-
araubideko osasun arloko laguntza eskaintzen du,
beste zerbitzu batzuen artean, gaixo psikogeriatri-
koentzat, bereziki dementsia-sindromeak (Alzhei-
merra eta beste gaixotasun batzuk) eta zainketak
edo zaintza somatikoa behar dituzten bestelako
nahaste psikiatrikoak. Gaur egun, hori da halako
gaixoetan espezializatutako osasun zentro baka-
rra Nafarroan.

Ezaguna da zentro horrek azken 15 urteotan
eginiko lana eta emandako zerbitzua. Zentro ain-
tzindaria eta erreferentziakoa da geriatriako gai-
xoak zaintzen, bereziki dementsiak dituztenak.
Horretaz gain, Sakanan dagoen zerbitzu espeziali-
zatu bakarrenetariko bat da.

2006an Nafarroako Gobernuak, zehazki Osa-
sunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, hitzar-
men bat sinatu zuen aipatu fundazioarekin,
2009ko abenduaren 31n amaitzen dena. Hitzar-
men horrek soilik eragiten dio egonaldi laburreko
ospitaleratze-zerbitzuaren zati bati, baina ez kan-
poko kontsultei, ezta eguneko zentroari ere. Hain
zuzen, eguneko zentroa da Sakanan dagoen
bakarra, eta oso beharrezkoa da eskualde horre-
tan.

Beharrezkoa ikusten dugu hitzarmen berriaren inguruko negoziazioan finantzaketa eredu egonkor bat sortzea ospitaleratze zerbitzurako, kanpoko kontsultetarako eta eguneko zentrorako, zentro horrek ziurta ditzan ematen dituen zerbitzuak; izan ere, zerbitzu hori ez zaie ematen Sakanako biztanleei bakarrik, nafar guztiei baizik. Ez dugu ulertzen eta ez gatoz bat halako ezaugarriak dituen zentro bat eskualdeko enpresen dirulaguntzen edota Nafarroako Kutxaren "Zeuk aukeratzten duzu: zeuk erabakitzen duzu" ekimenaren menpe egotearekin; izan ere, ospitaleko laguntzaz ari gara.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu Osasun Departamentua premiatzen du bere gain har dezan Josefina Arregui zentro psikogeriatrikoko egonaldi laburreko ospitaleratze-araubideko osasun-laguntza osoa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu Osasun Departamentua premiatzen du kan-

poko kontsulten zerbitzua mantentzean eta bere gain har dezan Josefina Arregui zentro psikogeriatrikoan zerbitzu hori emateak duen kostua.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua premiatzen du hitzarmen bat egin dezan Josefina Arregui zentro psikogeriatrikoan dagoen eguneko zentroarekin.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua premiatzen du azterlan bat egin dezan, jakiteko Mendekotasunaren Legearen arabera zenbat postu behar diren eguneko zentroetan, eta azterlan horren arabera kontuan har dezan aipatu eguneko zentroa handitzeko edo eskualdeko beste herri batzuetan eguneko zentro berriak egiteko aukera.

Iruñean, 2009ko urriaren 27an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jaso dezan 7/2009 Foru Legean xedatutakoa.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jaso dezan 7/2009 Foru Legean xedatutakoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia eta Ogasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek,

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikularen eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Ekonomia eta Ogasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioak:

Ekainaren 15ean argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 arautzeko Foru Legea. Aipatu foru legean eta parlamentu-talde gehien adierazpenetan bereziki nabarmendu zen funts hori arautzeak herritarren erabakiak errespetatzea dakarrela.

Horrekin lotuta, 7/2009 Foru Legeak arazo bat konpondu zuen; izan ere, 1987az geroztik, errenta aitortzearen bidez "gizarte-intereseko beste xede batzuk" izeneko laukitxoak agertzen bazen ere, aukera hori ez zen aurreikusten Nafarroako aurrekontu orokorretan. Are gehiago, arazo hori Nafarroako arartekoaren txosten baten eta Pobreziaren Kontrako Sarearen kritiken xede izan zen.

Duela gutxi, 2010erako aurrekontuen aurreproiektua aurkeztu zaigu, eta agerikoa da aipatu foru legearen transposizio okerra egin dela, zenbait kasutan foru legearen filosofia errespetatu gabe; izan ere, aurreproiektu honetan aurreikusten da bai elkarteei dirulaguntza nominalak ematea bai partikularrek foru lege horri heltzeko aukera.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak emandako informazioen bidez jada badakigunez, milaka izan dira beren errenta aitortpenetan "gizarte-intereseko beste xede batzuk" laukitxo aukeratu duten nafarrak, PFEZaren % 0,7aren xede gisa. Hori dela eta, beharrezkoa da eskatzea 7/2009 Foru Legea modu zehatzagoan eta onetsitako testuaren filosofiari jarraikiz aplikada dila.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako aurrekontu orokorretan modu egokian jaso dadin 7/2009 Foru Legean xedatutakoa, batez ere 2. eta 7. artikuluetan xedatutakoa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du PFEZaren % 0,7aren funtsa uler dezan aurreikusitako gizarte gastuaren funts osagarri gisa.

Iruñean, 2009ko urriaren 27an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan bertsolaritzaren gaineko ikerketa, zabalkunde eta sustapen programa bat diseinatu dezan 2010eko ekaina bitartean.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan bertsolaritzaren gaineko ikerketa, zabalkunde eta sustapen programa bat diseinatu dezan 2010eko ekaina bitartean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko mozioa aurkeztu nahi du, Nafarroako Parlamentuko Vianako Printzea Erakun-

dea-Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioak

Bertsolaritza, hau da, abestuz, errimatuz eta neurtuz burutzen den berbaldia, hala bat-batekoa nola idatzia, Euskal Herriko ahozko tradizio joriarren zati da. Bertsolaria, munduko inprobisatzaile gehienak ez bezala, musika-tresnaren laguntzarik gabe aritzen da bertsoan ahozko literaturan txertatzen den hitzezko sormena landuz.

Nafarroan bertsolaritza euskal kulturaren adierazpenetako bat da eta Nafarroako kultura ondare ez materialaren adierazpidea. Bertsolaritzak tradizio luze eta herrikoa du Nafarroan eta, garrantzitsuena, egun bizirik dago. Nafarroako euskaldunek bertsolaritzaren tradizioa jaso, transmititu eta belaunaldi berriek gaurkotu eta egungo munduan txertatu dute. Horren seinale dugu bertsolaritza gaztea eta urbanoaren gertakaria.

Nafarroan bertsolaritzaren bizitasunaren adierazlerik garbiena Nafarroako Bertsozale Elkarteak da. Elkarte horrek 2009ko irailaren 9an Nafarroako Parlamentuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean egindako lan bileran azaldu bezala, 25 urteko ibilbidea du Nafarroan bertsolaritza sustatzen: bertsolaritza haur eta gaztetxoengana hurbiltzeko programak antolatzen

(2008-2009 ikasturtean 1.111 gaztetxo Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoak, Nafarroako 61 ikastetxe publikotan), Nafarroako hainbat herritako Bertso Eskoletan haur eta gaztetxoak bertsoekin zaletu eta trebatzeko jarduerak egiten (2008-2009 ikasturtean 21 bertso eskola daude eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan ere Bertsolantegia antolatu dute), antolatzen diren lehiaketak (azken bertso-paper lehiaketan Nafarroako 54 ikastetxetako 1.453 ikaslek hartu dute parte), txapelketak, argitaratzen duen material didaktikoa... Beraz, egun Nafarroan bertsoaritzaren adierazpen kultural bizi eta dinamikoa da.

Bertzalde, bertsoaritzaren Nafarroako adierazpen kultural gisa babestu eta sustatzeko arau markoa ere egon badago:

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak bere 1.3 artikuluan dio Nafarroako euskalkiek errespetu eta babes berezia izan behar dutela eta xedapen gehigarriak Vianako Printzea Erakundeari egotzi zion agindu hori betearazteko behar diren jarduerak aurrera eramatea.

Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legeak, bere 18. artikuluan honako hau ezarri du:

“3. Foru lege honen ondorioetarako ondasun ez-material dira Nafarroako kulturaren adierazgarri diren ezaupide, teknika, usadio eta jarduerak eta halaber hizkuntzak, Nafarroan dituzten tokian tokiko bereizitasunekin.”

Kultur Ondareari buruzko Foru Legeak bere 69. artikuluan, honako hau dio ondasun etnologiko ez-materialen babesaz

“1. Foru lege honen 53. artikuluan Nafarroako Foru Komunitateko ondasun etnologiko ez-materiali buruz xedatutakoa ezertan galarazi gabe, kultur arloko departamentu eskudunak bultzatuko du eta beharrezko neurriak hartuko ditu haiek aztertu, ikertu, dokumentatu, erregistratu eta euskarri sendoa jasotzeko, geroko belaunaldien estimazioa eta haien esku jartzea bermatua egon dadin.

2. Ondasun ez-materialak Nafarroako Kultur Ondasunen Erregistroan inskribatzeak lehentasuna emanen die, gisa bereko gainerako jardueren artean, haiek babestearen, haien zabalkunde-lana egitearen eta dirulaguntzak eta laguntza ofizialak eskuratzearen ikuspegitik lor dezaketinari buruz.”

Beraz, parlamentu-talde honi bertsoaritzaren Nafarroako kultur ondare ahozko eta ez-material gisa babestu, iraunarazi, belaunaldi berriei transmititu, ikertu, zabaldu eta sustatzera zuzendutako ekimen osoa beharrezkoa dela iruditzen zaio.

Hori horrela, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuarekin premiatzen du:

1. Nafarroan Bertsoaritzaren gaineko ikerketa, zabalkunde eta sustapen programa berezi eta zehatz bat diseinatu dezan 2010eko ekaina bitartean, ondoren Parlamentu honetan aurkezteko.

2. Horretarako kontuan har dezan Nafarroan bertsoaritzaren alorrean lanean diharduen gizarte ekimenarekin hitzarmena egitea.

3. Nafarroako aurrekontuetan aipatu programa horri bere diru saila esleitzen diezaiola.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun etxeetako administrazio-alor guztiei buruzko azterlan bat egin dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita osasun etxeetako administrazio-alor guztiei buruzko azterlan bat egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Proiektu pilotuaren helburu nagusia da laguntza-prozesuaren antolamenduari buruzko eredu berriak garatzea, herritarren beharrezan erantzunen dietenak eta profesional guztien garapenerako lagungarriak izanen direnak, antolamenduaren emaitzak, kalitate integralaren ikuspuntutik hartuta, hobetze aldera. Kalitate tekniko gehi hautesmandako kalitatea gehi efizientzia.

Proiektuari eta hobekuntza-arlo nagusiei dagokienez, ataletako batean "garapen profesionala

sustatzen duen antolamendu eredu bideratzailea" garatzen da, eta, horren barruan, "laneko asetzemaita" hobetzeari buruz hitz egiten da. Halaber, atal horretan instalazioen egokitzapena eta erosotasuna aipatzen dira.

Proiektu pilotuan zehaztutako eredu funtzional berriaren barruan, eta kontuan hartuta administrazioko langileek pisu handiago hartzen dutela, uste dugu langile horiek kokatzeko beharrezkoak diren espazioak, ekipamenduak eta lokalak gaitu behar direla, planean jasotakoari jarraikiz.

Kontuan hartuta langileek, erabiltzaileek eta Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuak ondo baloratutako proiektua dela, eta jakinik osasun etxeak era mailakatuan sartzan ari direla planean, uste dugu beharrezkoa dela Nafarroako osasun etxe desberdinetan egin beharreko obrek edota eraikitzen diren osasun etxe berriek kontuan hartzea aipatu planean jasotakoak.

Azaldutako guztia dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du hiru hilabeteko epean egin dezan osasun etxeetako administrazio atalei buruzko azterlan bat eta azterlan hori jarduera plan batean jaso dezan, kronograma eta aurrekontuarekin batera, laguntza prozesuaren antolamendua hobetzeko proiektuan ezarritako helburuak betetze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentuari eskatzen dio osasun etxe berrietan ere aipatu plana kontuan har dezan eta horien administrazio atalak proiektuaren arabera egin ditzan.

Iruñean, 2009ko urriaren 29an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da errezeta elektronikoa jar dezan abian Nafarroa osoan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita errezeta elektronikoa jar dezan abian Nafarroa osoan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluen eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Proiektu pilotuaren helburu nagusia da laguntza-prozesuaren antolamenduari buruzko eredu berriak garatzea, herritarren beharrezanean erantzun

nen dietenak eta profesional guztien garapenerako lagungarriak izanen direnak, antolamenduaren emaitzak, kalitate integralaren ikuspuntutik hartuta, hobetze aldera. Kalitate teknikoa gehi hautesmandako kalitatea gehi efizientzia.

Plan horretan aurreikusten den hobekuntza elementuetako bat da "gaixoari bideratutako arreta eredu". Halaber, esaten da irisgarritasuna dela oinarritzko osasun laguntza zehazten duen oinarritzko elementuetako bat, osasun sistemaren lehen maila eta sarbidea baita.

Hala ere, alde aurretik ikusten den errealitatea da irisgarritasun arazoak direla herritarrak gutxien gogobetetzen dituztenak, betiere haien iritzian.

Halaber, osasun laguntzaren burokratizazioa murrizteko eta arinagoa egiteko beharra jasotzen da.

Azaldutako guztia dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du hilabeteko epean errezeta elektronikoa jar dezan abian Nafarroa osoan.

2. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du hilabeteko epean telefonia zentral berriak jar ditzan abian Nafarroa osoan.

Iruñean, 2009ko urriaren 29an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

**Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak hurkotasuna adierazten die Nagore Lafaggeren eta M^a Puy Pérezen famili-
ei, eta orain arte erakutsi dien babeseta eta elkartasuna berresten ditu.**

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak, epaiketen aurreko une mingarri hauetan, hurkotasuna adierazten die Nagore Lafaggeren eta M^a Puy Pérezen famili-
ei, eta orain arte erakutsi dien babeseta eta elkartasuna berresten ditu.

2. Nafarroako Parlamentuak gizarteari dei egiten dio parte har dezan antolatzen diren elkartasun ekimenetan, agerian gera dadin familiak ez daudela bakarrik une hauetan.”

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer irizpide baliatu dituen 2010eko Nafarroako Aurrekontu Orokorren aurreproiektuan PFEZaren % 0,7ko kontusailak ezartzeko.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer irizpide baliatu dituen 2010eko Nafarroako Aurrekontu Orokorren aurreproiektuan PFEZaren % 0,7ko kontusailak ezartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

2010erako aurrekontuen aurreproiektuan PFEZaren % 0,7ko kontusailei buruzko galdera.

1. Zer irizpide baliatu ditu 2010eko Nafarroako Aurrekontu Orokorren aurreproiektuan PFEZaren % 0,7ko kontusailak ezartzeko?

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, NA-135 errepidearen trazadurari buruzkoa.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, NA-135 errepidearen trazadurari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Erroko tunelaz gain, departamentu horrek ba al du asmorik 2010ean hobekuntzarik egiteko NA-135 errepidearen trazaduran?

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Galdera, Nafarroako Antzoki Sarearen webgune berriari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Antzoki Sarearen webgune berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Batzordean ahoz erantzun dezan:

Noiz egonen da erabilgarri Nafarroako Antzoki Sarearen webgunea?

Iruñean, 2009ko urriaren 27an.

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Nafarroako arte eszenikoko konpainien eta taldeen behin betiko katalogo gaurkotuari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako arte eszenikoko konpainien eta taldeen behin betiko katalogo gaurkotuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Batzordean ahoz erantzun dezan:

Noiz egonen da sektore guztien eskura Nafarroako arte eszenikoko konpainien eta taldeen behin betiko katalogo gaurkotua?

Iruñean, 2009ko urriaren 27an.

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Foru Administrazioiko behin-behinekotasunari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Foru Administrazioiko behin-behinekotasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Foru Administrazioiko behin-behinekotasun tasari buruzko galdera.

- Zergatik handitu hainbeste Foru Administrazioiko behin-behinekotasun tasa azken hiru hilekoan?

- Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak arazo hori konpontzeko?

Iruñean, 2009ko urriaren 28an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Iruñean 1972an eginiko topaketen erakusketari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Iruñean 1972an eginiko topaketen erakusketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zioen azalpena

1972an Iruñean eginiko topaketak Espainiako arte garaikidearen historiaren zedari dira. Horren adierazgarri da Reina Sofía Artearen Zentro Nazionalak 2009ko urriaren 27an inauguratu zuen era-

kusketa garrantzitsua. Bertan izan ziren Kultura eta Turismoko kontseilaria eta Iruñeko alkatea, beste agintari batzuen artean.

Ikusirik erakusketaren oihartzuna eta garrantzia, eta kontuan hartuta arte garaikidearen inguruko jarduera instituzional eskasa eta gure parlamentu-taldeak eskatutako Arte Garaikidea Sustatzeko Planaren garapen urriak, egokia dirudi ekimen hau baliatu ahal izatea gertaera hura Iruñean eta Nafarroan gogoratzeko eta hurrengo belaunaldiek ezagutu ahal izateko 1972an eginikoaren garrantzia.

Hori guztia ikusirik, hona galderak:

1.- Zer parte-hartze izan dute Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak erakusketa horren prestaketan eta garapenean?

2.- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik zerbait egiteko, Reina Sofía Artearen Zentro Nazionalan aurkeztutako erakusketa Iruñean ikus dadin etorkizun hurbilean?

3.- Gobernuaren ustez, erakusketa horrek lagundu al dezake gaur egun arte garaikideak Nafarroan bizi duen egoera instituzional motela suspertzeko?

Iruñean, 2009ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, etxebizitzak barrutik zaharberritzeko eskaerei buruzkoa.

JOSÉ MARÍA VÁZQUEZ ROYO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José María Vázquez Royo jaunak aurkeztutako galdera, etxebizitzak barrutik zaharberritzeko eskaerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José María Vázquez Royo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Gaur egun bizi dugun krisi ekonomikoaren eraginez, zenbait produkzio-sektore bereziki kaltetuak

izan dira, hala nola higiezinena. Baina, horrekin batera, bereziki kaltetua izan da ehun soziala, bai eta sektore horretako langile asko ere, kasu askotan lanpostua ere galdu baitute.

Egoera ikusirik eta erantzun bat eman nahian, Parlamentuak Etxebizitza arloko Presako Neurriek buruzko Legea onetsi zuen. PSNk bere ekarpena egin zuen, legearen edukia aberasteko balio izan zuten proposamen zehatzen bidez.

Egin nahi ziren jardueren artean aurreikusten ziren, besteak beste, zaharberritze-lanei eta barneko erreformei buruzkoak. Lau hilabetetik gora iragan direnez Etxebizitza arloko Presako Neurriek buruzko Legea indarrean sartu zenetik,

Galderaren testua

Zaharberritze-lanei eta barneko erreformei buruzko zenbat eskabide jaso dira? Horietatik zenbait onartu dira? Zenbateko dirulaguntzak eman dira orain arte kasu bakoitzean?

Iruñean, 2009ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: José M.^a Vázquez Royo

Galdera, alokairuko 1.000 etxebizitzatik gora eraikitzeke proiektuen lizitazioari buruzkoa.

JOSÉ MARÍA VÁZQUEZ ROYO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José María Vázquez Royo jaunak aurkeztutako galdera, alokairuko 1.000 etxebizitzatik gora eraikitzeke proiektuen lizitazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José María Vázquez Royo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zioak

Herritarren kezka nagusienetako bat da etxebizitza duin bat eskuratu ahal izatea. Kezka horrek eragin berezia du gazteengan.

Hala ere, gaur egun ekonomiak, oro har, bizi duen egoerak, baita Nafarroan ere, behartzen gaitu eskura ditugun neurri guztiak hartzera egoe-

ra hori zuzendu ahal izateko eta etxebizitza bat eskuratzea errazteko, bai jabetzan bai alokairuan.

Etxebizitza bat behar dutenek arazo askori egin behar diete aurre mailegu hipotekario bat lortu ahal izateko, eta askotan etxebizitzari uko egin behar izaten diote, ezinezkoa egiten zaielako maileguari aurre egitea edota, gehienetan, entitate finantzarioek ez dietelako mailegurik eman nahi.

Hori dela eta, ezinbestekoa da alokairuzko etxebizitza sustatzea, dagoen eskaerari erantzun eraginkorra emateko.

Kontuan hartuta gai hau jaso zela Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Alderdi Sozialistak

2008an sinatu zuten Etxebizitzaren aldeko Gizarte Itunean, galdera hau egin nahiko nuke, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Gaur egun, 1.000 etxebizitzatik gora eraiki daitezke azken etxebizitza-garapenen ondorioz egini-ko nahitaezko lagapenetatik heldutako lurzatieta. Nafarroako Gobernuak noiz lizitatuko ditu proiektu horiek etxebizitza bat jabetzan eskuratzetik ez duten pertsona askori aukera bat eskaintzeko?

Iruñean, 2009ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: José M.^a Vázquez Royo

Galdera, Reina Sofia museoak antolatutako “Encuentros del 72” izeneko erakusketari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Reina Sofia museoak antolatutako “Encuentros del 72” izeneko erakusketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentariaren elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

Zioen azalpena

1972ko ekainaren 26tik uztailaren 3ra bitartean egin zen Iruñean, Juan Huarteren mezenasgopean, beharbada Espainian inoiz egin den abango-

ardiako arte jaialdi handiena eta esanguratsua. Behintzat, ez da zalantzan jartzen hura izan zela Iruñean inoiz ikusi den abangoardia esperimentaleko arte ekitaldi garrantzitsua. Ez dago arte garaikidearen historia libururik topagune haiek aipatu eta egun haietan Iruñean bildu ziren 350etik gora artistetakoren baten iritziak jasotzen ez dituenik.

2009ko urriaren 28tik 2010eko otsailaren 22ra, Reina Sofia Arte Museo Nazionalak antolatuta, 72ko Topaketak izeneko atzera begirako erakusketak izanen da ikusgai. Dauzkagun datuen arabera, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak parte hartu dute erakusketako katalogoaren argitalpenean.

Oso interesgarria litzateke nafar guztientzat topaketa haien esanahia ezagutzea eta erakusketak horretaz gozatu ahal izatea. Hori dela-eta, ondoko galderak aurkeztu ditugu:

- Nafarroako Gobernuak eskatu al du aipatu erakusketa Nafarroara ekartzeko?

- Halakorik egin ez badu, eta ikusirik Nafarroan halako erakusketa gutxi izaten direla, ba al du eskatzeko asmorik edo zer arrazoik eragotziko lukete erakusketa hori gure erkidegoan ikusi ahal izatea?

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Nazioarteko Garapenerako Lankidetza kontusailari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Nazioarteko Garapenerako Lankidetza kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko galdera.

Garapenerako Nazioarteko Lankidetza izeneko kontusailetik, zein da beteko den ehunekoa eta eginen den gastu osoaren zenbatekoa?

Iruñean, 2009ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Garapenerako Lankidetzako gastua kalkulatzeko aplikatzen diren formulei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Garapenerako Lankidetzako gastua kalkulatzeko aplikatzen diren formulei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Garapenerako lankidetzari buruzko gastua kalkulatzeko aplikatutako formulei buruzko galdera.

Zergatik aldatu zen 2005ean garapenerako lankidetzari buruzko gastua kalkulatzeko aplikatzen den formula?

Iruñean, 2009ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Nafarroako Antzerki Eskolarako egoitza egonkor bat bilatzeko zuzemenei buruzkoa.

MARÍA LUISA MANGADO CORTES ETA ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREEK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes eta Ana Figueras Castellano andreek aurkeztutako galdera, Nafarroako Antzerki Eskolarako egoitza egonkor bat bilatzeko zuzemenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras

Castellanok eta Nafarroa Bai parlamentu-taldeko María Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu dituzte, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

Zioen azalpena

Nafarroako Parlamentuak, 2008ko otsailaren 28an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen:

“Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako Antzerki Eskolako arduradunekin lankidetzan, konponbide bat azter dezan egoitza egonkor bat izate aldera.

1. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du Nafarroako Antzerki Eskolako arduradunekin batera konponbide bat aurki dezan Nafarroako Antzerki Eskolak egoitza egonkorra izateko, Iruñean antzerkia sustatu eta irakasteko lanean jarraitu ahal izan dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du Nafarroako

Antzerki Eskolako arduradunekin batera konponbide bat azter dezan, zentro horretan etorkizunean emanen diren antzerki-ikasketei aitorpen ofiziala ematera bideratutako hezkuntza-eskaintza bat sortzeko.”

Nafarroako Parlamentuak, duela urte eta erdi onetsitako erabaki honen bidez, Gobernuak premitzen zuen arazo historiko bat konpon zezan, Nafarroako Antzerki Eskolak etorkizunean ere aukera izan zezan bere lana egiteko. Hori dela eta, parlamentari hauek ondoko galderak aurkeztu ditugu:

Zer egin du Nafarroako Gobernuak Parlamentuaren erabakia, Nafarroako Antzerki Eskolako arduradunekin lankidetzan egoitza egonkor bat bilatzeko premiatzekoa, betetze aldera?

Gaur arte, zer zuzemen egin ditu Nafarroako Antzerki Eskolako arduradunekin batera, zentro horretan etorkizunean emanen diren antzerki-ikasketei aitorpen ofiziala ematera bideratutako hezkuntza-eskaintza bat sortzeko?

Iruñean, 2009ko urriaren 28an

Foru parlamentariak: Ana Figueras Castellano eta María Luisa Mangado Cortes

Galdera, Esako gaizkata-haztegiari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Esako gaizkata-haztegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaión:

2009ko apirilean eta irailean, parlamentari honek zenbait galdera egin zituen, Esako arrain-haztegiaren hazkuntzaz arduratzen den enpresari buruz. Bestalde, 2009ko urriaren batean Esako alkatearen adierazpen batzuk agertu ziren Diario de Navarra egunkarian. Horien arabera, orain arte egon ez diren “presioak” egon dira lizentziak emateko. Foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1. 2009ko maiatzaren 1az geroztik, Sodena enpresa publikoko nor eta noiz egin zuen bilera Esan, udaleko kideekin, Esako arrain-haztegiaren gaizkatararen hazkuntzaz hitz egiteko?

2. Zer hitz egin zen bilera horietan?

3. Bilera horietan Esako Udalak aipatu al zuen gaizkatararen hazkuntza baimenik gabe egiten zela?

4. Ohikoa al da Nafarroako Gobernuaren enpresa publikoek bilerak egitea instalazioak hartzen dituzten udalekin?

5. Foruzaingoak egin al du zuzemenik 2009ko urriaren 1ean egunkarian argitaratu zen berria dela-eta, bertan esaten baitzen Esako arrain-haztegiaren gaizkatararen hazkuntza baimenik gabe egiten ari zela? Gai horri buruz emandako aginduen kopia jaso nahiko nuke.

6. Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L. sozietatean duen partaidetza Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.U.n sartzeko? Zer txosten egin dira edo egingen dira bere jardura baimenik gabe egiten duen enpresa bat aipatu korporazioan sartzeko? Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.U.n sartutako enpresa guztiak al daude Piscifactoría de Sierra Nevada S.L. sozietatearen egoera berean?

7. Nafarroako Gobernuak, zehazki, Ingurumen Departamentuak ba al du informazio zuzenik Esan egiten ari den gaizkatararen hazkuntza legez kanpoari buruz? Eginiko jarduketaren kopia eskuratu nahiko nuke.

8. Sodenako langileek egin al dute bilerarik Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin Esako arrain-haztegiaren gaizkatararen hazkuntzaz hitz egiteko? Zehazki, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak eman al du isurketak egiteko baimenik? Ohikoa al da Sodenaren partaidetza duten enpresek Urei buruzko Legea ez betetzea?

9. Zer dieta kobratu ditu Sodenak edo bertako langileek Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L. sozietatearen bileretara joateagatik?

10. Zer onura lortu ditu Sodenak Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L. sozietatetik sozietate honen akzioak dituenetik?

11. Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L. sozietateak eskatu al du Nafarroako Gobernuaren edo Europar Batasunaren dirulaguntzarik? Aurkeztutako dokumentazio guztia eskuratu nahiko nuke.

12. Posible al da Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L. gaizkatak hazten jarraitzea Esako arrain-haztegiaren horretarako baimenik izan gabe ere? Dirulaguntzak eman dituen edo emanen dituen organoari esan al zaio ez dagoela baimenik jardura hori egiteko?

13. Sodenak Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L. sozietatearen akzioak erosteari buruz Nafarroako Gobernuko Ondare Zerbitzuak eginiko txostenak eskuratu nahiko nituzke.

14. Piscifactoría de Sierra Nevada S.L. sozietateari gaizkatararekin lan egiteko proba baterako emandako baimen berriaren kopia eskuratu nahiko nuke.

Iruñean, 2009ko urriaren 28an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Zentro Pilotuen Planari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Zentro Pilotuen Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialdek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Zure departamentuak onetsi al du Zentro Pilotuei buruzko Plana? Hala bada, parlamentari honek jaso nahiko luke onespenez hori jasotzen duen dokumentu, foru agindu edo ebazpenaren kopia.

Iruñean, 2009ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, “Kutsadurari aurea hartzea eta zuzentzea” izeneko kontusailari buruzkoa.

MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, “Kutsadurari aurea hartzea eta zuzentzea” izeneko kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribas andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Zein da “Kutsadurari aurea hartzea eta zuzentzea” 740001 74100 7709456900 izeneko kontusailaren xedea eta zergatik baimendu da 2009rako aurrekontuan dagoen zenbatekoaren % 30 soilik?

Iruñean, 2009ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: María Gracia Iribarren Ribas

Galdera, zebra muskuiluen izurriari aurre egiteko hitzarmenik sinatu ez izanari buruzkoa.

MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, zebra muskuiluen izurriari aurre egiteko hitzarmenik sinatu ez izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribas andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Zergatik 2009an ez da sinatu zebra muskuiluen izurriari aurre egiteko hitzarmenik? Izurrite horrek eragindako arazoak konpondu al dira edo beste kontusailen baten bidez egin da hitzarmena?

Iruñean, 2009ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: María Gracia Iribarren Ribas

